

Gastronomia eta elikadura sektoreko hainbat enpresak nazioarteko merkatura jauzi egiten dute, BasquEAT proiektuari esker

Enpresen arteko lankidetzaren ekimen horren laguntzaile dihardute Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Bazkondeak, eta Europako merkatura eramango da, batez ere

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuko diputatu Ainhoa Aizpuruk eta Gipuzkoako Bazkondeko zuzendari nagusiak BasquEAT proiektua aurkeztu dute, gaur, Martin Berasategi sukaldaria lagun zutela. Proiektu horren bidez, Gipuzkoako hamara elikadura-enpresak elkarrekin lan egingo dute, nazioarteko merkatu berrietan aurrera egiteko. Donostiako sukaldaria proiektuarekin lankidetzan aritzearen helburua da BasquEATen kanpoko irudia indartzea.

BasquEAT proiektuak laguntzaile du Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentua, Elkarlana programaren esparruan, zeina, aldi berean, Ekonomia Sustapeneko 2015-2019ko Planaren parte baita. Programa horrek, iaz, 15 proiektu lagundu zien; 60 enpresak parte hartu zuten; eta aurrekontua, guztira, 550.000 euro baino gehiagokoa izan zen.

“Kontuan harturik Gipuzkoako enpresa-ehunaren ezaugarriak, hil edo bizikoa da gure ekonomiarentzat enpresen arteko lankidetzaren aldekoa, etorkizunari begira heldu behar diegun askotariko erronkei aurre egiteko, nazioarteko merkatuetara irekitzeari, besteak beste. BasquEAT proiektua horren adibide ona da, ardatz hartzen baitu, gainera, Gipuzkoarako estrategikoa den sektore bat, zeina baita gastronomia- eta elikadura-industria. Baditugu kalitate handiko hainbat produktu, halako desafioetan aukera berrietara zabaltzen lagundu behar diegunak”, azaldu du diputatuak.

BasquEAT proiektuak sorburu du elikadura-industria indartu beharra, sektoreko enpresa desberdinen arteko lankidetzaren bitartez, lehiakortasunean irabazteko, sinergiekin baliatzeko, eta dimentsioa nahiz nazioarteko presentzia handiagotzeko. Proiektuaren helburuek oinarri hauek dituzte: alde batetik, nazioarteko banaketa-sare bat ehuntzea, Gipuzkoako nekazaritza- eta elikadura-enpresa esportatzaileen kopurua handitzea, merkataritza-aukerak sortzea, eta proiektuan parte hartzen duten enpresen fakturazioa eta bezero zerrenda areagotzea, eta beste alde batetik, sektoreko enpresa txiki eta ertainen arteko lankidetzaren sustatzea, eta merkatuak dibertsifikatzea.

“BasquEAT izenarekin, Gipuzkoako Bazkondeak lortu nahi duena da nekazaritza- eta elikadura-*pool* bat eraikitzea, aukera emango diena artisautzako eta kalitate handiko gure enpresei merkatuan duten posizionamendua hobetzeko, eskaintza global eta erakargarri bat aurkeztuz nazioarteko erosleei”, gehitu du Gipuzkoako Bazkondeko zuzendari nagusi Endika Sánchez Aguirrek.



BasquEAT proiektuan parte hartzen duten enpresak hamar dira: Bruño e Hijos, Bon Cake Desserts-GELTOKI, Dastatzen, Embutidos San José, Congelados ORMA, Maisor Kontserbak, Nakulas, Quesos Aldanondo, Rafa Gorrotxategi 1680 eta Txogitxu. Horiek guztiek, BasquEATi esker, internazionalizaziorako bideari ekin diote, aurkezpeneko eskaintza bakarra eginda, zeinak haietako bakoitzaren produktuak nabarmentzen baititu.

Merkatuei dagokienez, BasquEATEk helburu nagusi ditu Europako merkatuak, hala nola Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Italia, Eskandinaviako herrialdeak, Holanda eta Belgika, eta horietaz gain, Mexiko. Izan ere, otsailean, prospekzio bidaia bat egin zen, eta bilerak lortu ziren izen handiko zenbait enpresarekin, hala nola El palacio del Hierro, Liverpool, Cadena de Supermercados Soriana eta Walmart.

Gaur egun, Euskadiko elikadura-industriak lana ematen dien lagun kopurua 15.000 inguru da. Sektorearen fakturazioa 3.500-4.000 milioi euro da, eta esportazioen balioa, berriz, 1.000 eurotik hurbil dago. Zifra horien heren bat, gutxi gorabehera, Gipuzkoari dagokio.

Elikadura-industriari loturik, ezin dugu ahaztu euskal sukaldaritzak. Lurraldean ditugun sukaldari ugari eta onen bikaintasunak ondorio biderkatzaile bat izan du, gure sukaldaritzak nazioarteko adituen jomugan jarri duena. Euskal sukaldaritzak nazioartean duen arrakastaren giltzarrietako bat lankidetzak da. Ezagutza-batuketak eta esperientzia-trukaketak funtsezkoak izan dira mundu mailan gaur egun duen posizionamenduan. Eredu horri jarraitu behar dio, zalantzarik gabe, gure elikadura-industriak: enpresa desberdinen arteko lankidetzak, dimentsio handiagok lortzeko, nazioarteko merkatuetan presentzia handiagok izateko, eta lehia-gaitasun handiagok bereganatzeko.

Zerbaitegatik izan du BasquEAT proiektuak Martin Berasategiren laguntza, bere babesa eman baitio proiektuari, produktu horiek aukera izan dezaten gastronomiaren sektorean ate berriak irekitzeko.

Donostia, 2017ko martxoaren 31a